

EKINTZAIETZA ETA MUGAZ HARAINDIKO EKIMENAK.

IGANTZI, 2017KO APIRILAREN 5A

Sarrera

Mundua –eta munduaren barruan, gure Euskal Herria– krisi ugari eta sakonak jasaten ari da, eta hurbilketa sistemiko batetik aztertuta, esan daiteke azken batean krisi bakarra dela (ekonomikoa, finantzarioa, sanitarioa, ekologikoa, morala, soziala, hiri- eta landa-eremukoa eta, beharbada, militarra). Txundituta gera gaitezke gogoeta horren inguruan sortutako arazoen konplexutasunaren aurrean. Arazo horiek hertsiki lotuta daude elkarrekin, eta haien konponbidea ez da batere agerikoa. Ez, behintzat, eskuragarri ditugun (eta krisian dagoen magma horrek sortu dituen, baina aldi berean arazoaren parte bihurtu diren) tresna kognitiboekin arrazoitzen jarraitzen badugu.

Nolanahi ere, gogoeta-ildo azpimarragarri batzuk ondoriozta daitezke:

- Lurralde bakoitzak, gainerakoekiko errespetuan oinarrituta, bere garapen harmoniatsu eta jasangarrirako bitartekoak aurkitu behar ditu, eta, horretarako, bertan bizi diren eta lurraldea bizirik iraunarazten duten (edo hiltzen uzten duten) komunitateak hartu behar dira kontuan. Testuinguru horretan, gizarte zibilak dagokion lekua bete behar du.
- Mundializazioaren berezko eredu militar-industrial, gure oparotasunaren oinarri izan dena, amaitu da dagoeneko. Populazioen ekologiaren teoriak erakusten duenez, lurralde bat, giza organismo edo populazio bat bezala, bertako enpresa batzuk amaitzen eta beste batzuk sortzen direlako bizi da (kasu honetan, eremu ekonomiko eta sozialean). Lurraldeak suspertzeko, ezinbestekoa da ekintzailtza, behar-beharrezkoak ditugun berrikuntzak ekarriko baitizkigu (sozialak eta ekologikoak bereziki). Garaia da (!) beste zerbait asmatzeko (ekimen endogenoagoen, deszentralizatuagoen eta oreka sozial eta ekologikoak, kulturak, bizi-proiektuak eta abar neurri handiagoan errespetatuko dituzten ekimenen bidez).
- Alderdi hori bereziki garrantzitsua da Euskal Herrian, “herrialde bat eraikitzeko” borondatea dagoela kontuan hartuta. Herrialde hau mugaz haraindikoa da (EAE, Nafarroa eta Iparraldea). Herrialdea eraikitzeko, fluxuen (informazioa, gaiak, finantzak, pertsonak eta abar) zirkulazio normalizatuko eremu eta mugaz kanpo abian jartzen diren ekimenen (mota



orotakoen, baina, besteak beste, ekintzailtzari lotutakoen) lurralde bihurtu behar dugu mugaz haraindiko espazioa.

Kezkatzen gaituen eta foro honetan landu nahi dugun gaietako bat, beraz, **ekintzailetza eta mugaz haraindiko ekimenak** dira.

Diagnostikoa: zergatik daude mugaz haraindiko hain ekimen gutxi?

- Arrazoi generiko ezagunak: kultura, hizkuntza, lege-alderdi desberdinak, geografia (orografia) eta abar.
- Politikak harreman natural (komertzial) tradizionalak hautsi ditu historikoki.
- Lehen mugak buruan daude: beste aldearen inguruko ezjakintasuna, beste aldea kontuan hartuta gogoetak egiteko prestasunik eza (“aztarna kognitiboa”)... Eskualde-identitatea (nazioz gaindikoa) ahultzen ari da, ez dugu elkar ezagutzen, ez ikusiarena egiten diogu elkarri (lurraldea, ohiturak, legeak, ekimenak, premiak, ahalmenak eta abar) eta ez dugu bestearenganako jakin-minik.
- Ez dago ‘mugaz haraindiko’ benetako prestakuntzarik (kontuan hartu behar da, nolana ere, Luzaide-Arnegiko eskola), unibertsitate-truke gutxi daude (eta zailtasunak daude tituluak baliozkotzeko eta egonaldi "gurutzatuak" egiteko) eta, azkenik, harreman txikia dago mugaren bi aldeetako gazteen artean.
- Hala ere, mugaz haraindiko alderdia guztiz beharrezkoa da lurralde-garapenari dagokionez (“Hegoaldea aurkitzea, Iparraldea aurkitzea”).
- Pertsonak (pertsonek ekuazio kognitibo eta emozional/afektiboa): “mugaz haraindiko asmoaren” buru diren pertsonak, hots, horretan sinesten duten, gogoak duten, jokoan dagoen guztia ulertzen duten eta konpromisoa hartu nahi duten pertsonak ez dira asko.
- Azken urteetan, “enpresa-asmoak” behera egin du nabarmen Hegoaldean, Iparraldean bete-betean garatzen ari bada ere (lurraldeari lotutako ekintzailtza arduratsu eta berritzailearen inguruko proiektuetan batez ere).
- Enpresek ez dute sortzen diren ekimenen berri, mugaz haraindiko ekimen pribatua urria da, ez dago lankidetzarik, eta ideia berritzaileek zailtasunak dituzte garatzeko.
- Bi aldeetako enpresaburuentzat, beste aldea ez da kanpoan erakutsi eta bultzatzen eskaintza bat eraikitzeko kultura biko plataforma bat, berenganatu beharreko merkatu bat baizik.



- Hainbat arazo bereizteko aukera ematen duten hainbat ikuspegi (“hainbat mundu”) identifika daitezke:
 - Landa-eremuak vs. hiri-eremuak.
 - Jarduerak: elikadura (‘biguna’) vs. industria (‘gogorra’: metala, aeronautika, automozioa...).
 - Ekonomia “dual” baterantz goaz (hurbiltasunaren printzipioan oinarritutako jarduerak vs. mundializazioari lotutako jarduerak). Lehenik eta behin “hurbiltasunezkoen” artean sailkatuta dauden, bereziki (baina ez eskusiboki) landa-eremukoak diren eta lurraldeen garapen integratua (integrala?) planteatzen duten jardueretikiko interesa agertzeko joera.
- Mugaz haraindiko ekintzailtza-ekimenetara egokitutako tresnarik ez izateak hutsune erraldoia utzi du, laguntzeko eta finantzatzeko tresnei dagokienez bereziki, "nazionalak" baitira oraindik ere (adibidez, Iparraldean, Pôle Emploi delakoa, eskualdeko eta departamentuko diru-laguntzak edota Frantzian finkatuta dauden eta beren jarduera “toki-mailan” garatzen duten enpresen aglomerazioak aipa daitezke).
- Orain arte, mugaz haraindiko arazoak erakunde arteko elkartrukeak eta erabakiak eragin ditu funtsean. Erakundeak kontserbadoreak dira nagusiki, eta ekimen gutxi egiten dituzte. Gizarte zibilak eta ekimen zibilek ez dute aurkitu (hartu?) beren tokia.
- Beraz, baldintzak sortu behar ditugu...

Proposamenak

Orokorrak:

- Erakundeei lurralde-ikuspegi hobea eskatzea eta ekintzak bultzatzea, detektatutako premia eta itzaropenetan oinarrituta. Administrazio publikoek elkarrekin eta, batez ere, gizarte zibilarekin lankidetzan hobeto jardutea.
- Euroeskualdea garatzea, eta legeria eta ‘paisaia’ bateratzea (eta, bereziki, hizkuntzaren auziari behar duen garrantzia ematea). Mugaz haraindiko espazioan dauden erakundeekin eta Europarekin lan egin behar da.
- Hainbat erakunde garrantzitsuren batasunak abian jartzea (Euskal Herri osoan), eta, bereziki, sindikatuenak edo enpresaburuen elkarteak.
- Gizarte zibilaren garaia heldu da!



- Esperientziatik abiatuta ikasi behar da (esperientzia oroimen indibidualetatik atera, erabiltzeko moduan jarri eta eskuragarri utzi behar da).
- Euskara lotura sendoa da bi aldeen artean. Oro har, euskaldunek neurri handiagoan agertzen dute mugaz haraindikoaren aldeko iritzia. Prozesu horietan, euskarari bere benetako tokia eman behar zaio, askotan –eta konturatu gabe ere bai– ematen zaion estatus “folklorikotik” atera behar da. Garatu, babestu eta zaindu beharreko “zimendua” da.
- Euskaraz gain, frantsesa ikastera bultzatu behar da Hegoaldean, eta gaztelania Iparraldean.
- Hezkuntza-arloko mugaz haraindiko esperientziak eta ekimenak bultzatu behar dira: mugaz haraindiko taldeak sortu, senidetzeak bultzatu... eta gazteak Euroeskualdeko eremuan ‘mugitzera’ animatu behar dira: bekak, ‘gazteen’ turismo espezifikoak, topaketetarako aukera gehiago sortzea eta abar.
- “Gogoak eman” behar dira eta motibatu egin behar da. Horretarako, mugaz haraindiko eremuko jendearen eta eragileen herritar-kontzientziaren sustraian sakondu behar dugu, eta sakoneko ekintzak egin behar ditugu zentzu horretan (batez ere gazteengana, hezkuntza-sistemara, unibertsitate-sistemara, lanbide-heziketara, kulturara, euskarara, kirolera eta abarrera bideratuak). Halaber, ekimen horien alderdi positibo oro –batzen eta hurbiltzen duen oro– agertu behar dugu, eta, gainera, lurraldeko gizarte osoarentzat agertu behar dugu, ohiko zirkulu txikietatik kanpo.
- Euroeskualdeko aberastasuna, aniztasuna eta ahalmenak erakutsi, eta helburu komunak eta partekatuak eraiki behar dira elkarrekin. Horretarako, batzen gaituzten baliabideak erabili behar dira, dagoeneko badaudenak [*think-tank* izenekoak bereziki] eta irudika ditzakegun beste batzuk.
- “Tresna” egokituak behar ditugu
 - Mugaz haraindiko tresna bat jarri behar da abian (horixe espero da botere publikoen aldetik), lurralde guztien diagnostikoa egiteko (euskal lurralde osoaren ikuspegi sistemiko bati begira), mugaz haraindiko ekintzailtza-ekimenen premia, sustapena eta laguntza lantzeko (ekimen guztiena, oro har, baina mugaz haraindiko eremu berean elikadura- eta energia-burujabetza areagotzeko helburua dutenena bereziki) eta ekimen horiek finantzatzeko.
 - Topaketak eta lankidetzak bultzatzeko guneak eta ekitaldiak sortzea.



Zehatzak:

- **Elkar ezagutzeko aukera** garatzea (eskola-curriculumean, mugaz haraindiko sendotasuna emanez), hurbiltzeko elkartrukeak areagotzea (praktikak, proiektuak, senidetzeak... eta horiei sistematikoki laguntzea), eta hizkuntzetan prestatzea (elkartrukeak berriz ere!). **Mugaz gaindiko hizkuntza-politika** bat garatzea.
- **Eragileekin lan egitea:** administrazioak, Bihartean, SPRI, hiru gobernuei lotutako establezimenduak, enpresa-sehaskak, haztegiak eta abar.
- Gazteekiko eta haien sozializazio eta hezkuntzarekiko interesa agertzea: **mugaz gaindiko ekintzaileen kontzientziak** garatzea, eta lanbide-heziketan dauden gazteekiko interesa agertzea.
- **Diplomak normalizatu eta baliozkotzea.**
- **Intereseko sektore berriak** garatzea, hala nola:
 - Kultura- eta jolas-arloko industriak eta jarduerak
 - Kirola, zeharkako balio gisa
- Mugaz haraindiko lurraldean ondasun eta pertsonentzako **garraio eta komunikazioko** soluzioak abian jartzea.
- **Enpresen kalitateari** (erreferentziak baitira munduan) eta gure lurraldean **lanak duen balioari** (konpromisoa, dedikazioa, kalitatea) balio handiagoa ematea.
- **“Mugaz haraindiko Korrika ekintzaile”** bat sortzea: ekimenak ezagutaraztea, gazteen integrazioa ahalbidetzea, lurraldeko “talentuak” nabarmentzea (nekazaritza, artisautza, artea, kultura eta abar) eta ekimen mota egingarriak azpimarratzea.
- Kohesioa, ilusioa eta identitatea sortuko dituen **“marka komun”** bat sortzea (ekologia, osasuna, elkartasuna, jasangarritasuna, ekonomia zirkularra eta abar).
- **Mugaz haraindiko zirkuitu laburrak** abian jartzeko aukera bultzatu eta erraztea.
- Lurralde osoan **kulturaren eta kultura-turismoaren arloko sareak** sortzea, kanpokoentzat (bisitariantzat) zein lurraldeko biztanleentzat. Gure lurraldeetako aberastasunak ezagutzeko zirkuituak sortzea. Kultura-senidetzeak bultzatzea. **Kulturaren eta ekonomiaren arteko lotura** sustatzea. Ekimen horiei guztiei buruzko **informazioa ematea**.
- **Think-tank** izenekoak (‘Etorkizuna Irudikatu’, adibidez) oso garrantzitsuak dira, eztabaida kolektiboa (EAE, Nafarroa eta Iparraldea, kanpoko adituen ekarpenekin) eta euskal gizartearen adimen kolektiboaren adierazpen aktiboa ahalbidetzen baitute. Oso garrantzitsua da gizarte osoko ordezkariak parte hartzea, hiru lurraldeetako erabaki-organoak barnean hartuta.



- Proiektuen **mugaz haraindiko DNA** zehazteko aukera emango duten **aliantza motak** aurkitu behar dira. DNA hori askotarikoa izan daiteke (eta horrek mugaz haraindiko ekintzailtza-proiektuen lehen “tipologia” bat zehazteko aukera eman beharko luke):
 - konpetentzia osagarriak,
 - balio-kateko osagarritasunak,
 - jarduera bat beste aldera zabaltzeko aukera,
 - mundua elkarrekin ikusteko ahalmena (bereziki Hegoaldea Iparraldearekin merkatu frankofonoetarantz [bereziki Afrikan pentsatuta] eta Iparraldea Hegoaldearekin merkatu hispanofonoetarantz). Nazioarteko eremuan ausartu eta, bereziki, euskal diasporara zuzendu beharra dago (ahalegin berezia egin behar da elikadura-sektoreari dagokionez; euskal “moda” ere esportatzen saiatu beharra dago!)
- Estatus egonkorra eman behar zaie ikuspegi horiei (“instituzionalizatu” egin behar dira, zentzu soziologikoan): **mugaz haraindiko botere publikoek tresna bat (edo batzuk) sortu behar dute**. Honako funtzionalitate hauek eduki beharko lituzke:
 - **Informazio-eremua** (mugaren bi aldeetako ekintzailtzarekin zerikusia duten datuei buruzko webgunea), mugaz haraindiko proiektuen “kasu” interesgarriak eguneratzea eta eskuragarri jartzea (ekimenen katalogoak, *success storie* izenekoak, baina, halaber, porrotak eta haien analisiak [ahal bada eragileek berek eginak]), enpresen aurkezpena, eta mugaz haraindiko ekimenen bidez askotariko adibide eta esperientzia horiek guztiak erraz “berreskuratzea” (4.0 industria, errealitate areagotua, hizkuntzak eta abar).
 - **Aholkularitza eta laguntza espezializatuko kabinete** bat sortzea. Modalitate hori saretan antola daiteke (aldez aurretik eratutako, baina etengabe eguneratutako saretan eskuragarri dauden konpetentzia garrantzitsuen mobilizazio gisa).
 - **Design thinkingeko** modalitateak abian jartzea, mugaz haraindiko ekintzailtza-ekimenen inguruko ideia berriak agerrarazteko.
 - Proiektuak dituzten (betiere proiektu horiek bi aldeetan tandem bat osatuz egin badaitezke) eta abian jartzera ausartzen diren ekintzaileentzat **mugaz haraindiko proiektuak inkubatzeko tresna** bat abian jartzea.
 - Eskualdeko erakundeek eta mugaz haraindiko eremuko banku eta finantza-erakundeek kudeatuko duten **mugaz haraindiko finantzaketako** tresna bat abian jartzea (diru-laguntzak, maileguak, *equitya*, *crowdfundinga*, funts espezifikokoak, fundazioak eta abar).



- Proiektuek duten interesari eta eskaintzen dituzten ikuspegiei buruzko **komunikazio sendo** bat abian jartzea.
- Mugaz haraindiko ekintzailetzari eta ekimenei buruzko saio horren emaitzak **hiru lurraldeetako arduradun politikoei aurkeztu beharko zaizkie**.